DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Hiri Mantentze eta Zerbitzuak
Mantenimiento y Servicios Urbanos
Easo, 43 2º | Tel. 010 - 943481038 | udala_hirizerbitzuak@donostia.eus www.donostia.eus
20006 Donostia

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

AURKIBIDEA

I. KAPITULUA: KONTRATUAREN HELBURUA, JARDUTE-EREMUA

II. KAPITULUA: EMATEKO ZERBITZUA

III. KAPITULUA: ZERBITZU BAKOITZAREN DESKRIBAPENA

-"ERREFUSA" ERAKO HIRI HONDAKINAK BILDU ETA PLANTARA GARRAIATZEA

- "ORGANIKO" ERAKO HONDAKINAK BILDU ETA PLANTARA GARRAIATZEA

- "ERREFUSA" ETA "ORGANIKO" ERAKO EDUKIONTZIEN ETA ELEMENTU OSAGARRIEN GARBIKETA, MANTENUA ETA ALDAKETA

- LURPEKO EDUKIONTZIEN GARBIKETA ETA MANTENUA.

- HIRIKO ALDE ZAHARREAN PAPER-KARTOIA BILDU ETA PLANTARA GARRAIATZEA

- TAMAINA HANDIKO HONDAKINAK BILDU, HAUTATU ETA PLANTARA GARRAIATZEA

- HERRITARREI ZUZENDUTAKO PRESTAKUNTZA ETA SENTSIBILIZAZIO NEURRIAK

IV. KAPITULUA: BALDINTZA OROKORRAK

V. KAPITULUA: LANGILEAK

VI. KAPITULUA: BITARTEKO MATERIALAK

VII. KAPITULUA: KONTROL-SISTEMAK

VIII. KAPITULUA - INSTALAZIO FINKOAK

IX. KAPITULUA - ZEHAPEN ARAUBIDEA

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

I. KAPITULUA: KONTRATUAREN HELBURUA, JARDUTE-EREMUA:

1. Artikulua.- HELBURUA:

Plegu honen helburua da Donostiako hiriko Hiri Hondakin Solidoak eta antzeko beste zenbait Bildu eta garraiatzeko zerbitzuak kontratatzea.

Hauek dira kontratuaren xede diren hondakinak:
- **Errefuxa**
- **Organikoa**
- **Paper/kartoia**
-**Tamaina handiko hondakinak** (etxetresna elektrikoak, etxeko elektronika, esklusiboki etxebizitzetakoak diren altzari eta izakinak, Hiri Hondakinak Biltzeko Udal Ordenantzaren 43. artikulua).

Plegu honetako 2. artikuluan zerbitzu hauetako bakoitza zer eremutan egin behar den eta zer eremu baztertzen diren azaltzen da.

Zerbitzu honen barruan enpresa esleipendunak Udalaren arabera biltzekoak diren **kontrolik gabe utzitako** hondakinen, "arriskutsu" modura katalogatzen direnak barne, bilketa eta kudeaketan esku hartzeko betebeharra jasotzen da.

Enpresa esleipendunak indarrean den Hiri Hondakinak Biltzeko Udal Ordenantzan bilketari dagokionez adierazten diren maiztasunak eta ordutegiak bete beharko ditu. IV. TITULUA, artikuluak: 42, 44, 46, 52 eta 54.

Hondakinak bildu eta garraiatzeaz gain, kontratu honen xedea da "errefuxa" eta "organiko" erako edukiontziak eta elementu osagarriak garbitu, mantendu eta aldatzea, eta Donostiako Udalak ipinitako lurpeko edukiontziak garbitu eta mantentzea.

Kontratistak zerbitzua ematen zaien herritarrei zuzendutako prestakuntza- eta sentsibilizazio-neurriak egikaritu beharko ditu, hondakinen prebentzioarekin eta arriskuarekin, berrerabilpenarekin, gaikako bilketarekin, hondakinak berrerabilpenerako eta birziklapenerako prestatzearekin eta hondakinak modu desegokian kudeatu eta zaborra sakabanatuta uztearen ondorioekin lotuta. Hori dela eta, lizitatzaileak egokien jotzen dituen prestakuntza- eta sentsibilizazio-neurriak gaineratu beharko ditu bere eskaintzan.

Esleipendunak beregain hartu beharko du konpost-poltsak saltzeko makinen mantenua, eta konpost-poltsen paketeak Udalak beharrezkotzat jotzen duen maiztasunez birjarri beharko ditu, makinak inoiz poltsarik gabe gera ez daitezen.

Kontratu honen xede diren zerbitzuak Baldintza Teknikoen Plegu honetako hurrengo kapituluetan zehazten dira.

2. artikulua.- EREMUA:

Honako hau da zerbitzuari dagokion lurralde-eremua, hondakin motaren arabera zehaztuta:

- **ERREFUXA**

BARNEAN DAUDE	KANPOAN GERATZEN DIRA
- Hiri osoa, kanpoan geratutakoak izan ezik	- Loiolako Erriberak eta Loiola, bilketa pneumatikoa dagoelako bertan ezarrita.

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

- Molinao eta Zubietako industrialdeak	- Bilketaren arduradun modura San Markoseko Mankomunitatea duten Industrialde eta enpresaguneak. - Zubietako alde Zaharra

- ORGANIKOAK

BARNEAN DAUDE	KANPOAN GERATZEN DIRA
- Hiri osoa, kanpoan geratutakoak izan ezik - Molinao eta Zubietako industrialdeak	- Loiolako Erriberak eta Loiola, bilketa pneumatikoa dagoelako bertan ezarrita. - Bilketaren arduradun modura San Markoseko Mankomunitatea duten Industrialde eta enpresaguneak. - Zubietako alde Zaharra

- PAPER/KARTOIA

BARNEAN DAUDE	KANPOAN GERATZEN DIRA
- Hiriko alde zaharra	- Hiriko gainerako eremuak - Bilketaren arduradun modura San Markoseko Mankomunitatea duten Industrialde eta enpresaguneak.

- TAMAINA HANDIKO HONDAKINAK

BARNEAN DAUDE	KANPOAN GERATZEN DIRA
- Hiri osoa, kanpoan geratutakoak izan ezik,	- Intxaurrondo, Loiola eta Martutene auzoak, non bilketa etxez etxe egiten baita beste kontratu batekin. - Bilketaren arduradun modura San Markoseko Mankomunitatea duten Industrialde eta enpresaguneak. - Zubietako alde Zaharra

<u>Zerbitzu honetatik kanpo geratutako eremuak:</u>

Kontratu honen xede den zerbitzutik kanpo geratzen dira jarraian zehazten diren Industrialde eta Enpresaguneak (horietan, gaur egun, bilketa San Markoseko Mankomunitateak egiten du).

- 27. industrialdea
- 28. industrialdea eta Sarroeta
- Belartza
- Errekalde 1 eta 2
- Txingurri

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

- Miramon
- Zuatzu
- Igarako 23. industrialdea.

Informazio gisa adierazten da taulan aurkezten den biztanleria guztiari eragiten diola hondakinen bilketak:

	Biztanleak
AIETE	14.418
ALTZA	20.414
AMARA BERRI	30.450
AÑORGA	2.280
ANTIGUO	14.562
ATEGORRIETA-ULIA	4.066
ERDIGUNEA	22.129
EGIA	14.941
GROS	18.424
IBAETA	9.968
IGELDO	1.080
INTXAURRONDO	15.603
LANDARBASO	16
LOIOLA	5.722
MARTUTENE	2.708
MIRAKRUZ-BIEDEBIETA	8.968
MIRAMON ZORROAGA	2.273
GUZTIRA	188.022

3. Artikulua.- LOTE BANAKETA:

Donostiako Udaleko hiri hori hondakin solidoen bilketarako zerbitzua ez da lotetan banatuko. (Espedientean jasotzen den Txosten Argudiatuko 12. puntuan jasotzen den eran).

II. KAPITULUA: EMATEKO ZERBITZUA

4. artikulua.- Hauek dira emateko zerbitzuak:

-"ERREFUSA" ERAKO HIRI HONDAKINAK BILDU ETA PLANTARA GARRAIATZEA.

- "ORGANIKO" ERAKO HONDAKINAK BILDU ETA PLANTARA GARRAIATZEA

- "ERREFUXA" ETA "ORGANIKO" ERAKO EDUKIONTZIEN ETA ELEMENTU OSAGARRIEN GARBIKETA, MANTENUA ETA ALDAKETA

- LURPEKO EDUKIONTZIEN GARBIKETA ETA MANTENUA.

- HIRIKO ALDE ZAHARREAN PAPER-KARTOIA BILDU ETA PLANTARA GARRAIATZEA

- TAMAINA HANDIKO HONDAKINAK BILDU, HAUTATU ETA PLANTARA GARRAIATZEA

- HERRITARREI ZUZENDUTAKO PRESTAKUNTZA ETA SENTSIBILIZAZIO NEURRIAK

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

III. KAPITULUA: ZERBITZU BAKOITZAREN DESKRIBAPENA

-"ERREFUSA" ERAKO HIRI HONDAKINAK BILDU ETA PLANTARA GARRAIATZEA

5. artikulua.- Errefuxa modura aintzatetsitako hondakinen definizioa:

- "Errefuxa" motako hondakinak etxean eta merkatu, merkataritza-establezimendu, bulego, zentro-ofizial, merkataritza-zentro, ostalaritza edota elikadura-gunetan sortutakoak dira, **gaikako biltzen ez diren hiri hondakin modura asimila daitezkeenak** eta Estatuko, erkidegoko eta udal esparruko araudiek hiri hondakin izatetik kanpo utzitako modura katalogatuta ez daudenak.

Informazio modura, 2020. urtean, hiriko edukiontzietatik eta Alde zaharretik "errefuxa" erako hondakin modura 43.554 tona hondakin jaso zen. Datu hori 2021. urtean 44.335 tonakoa izan zen; dena den, datuak pandemiak baldintzatuta daude.

6. artikulua.- "Errefuxa" erako hondakinen bilketarako sistemak, kontratu honen xede, alde Zaharrean izan ezik.
"Errefuxa" erako hondakinak albotik edo atzetik kargatzeko edukiontzien bidez biltzen dira, gainazalean jarritakoak, edo lurperatuta.
Lizitatzaileek **ibilbide egokienak proposatuko dituzte** eta, eskaintzen duten zerbitzuaren antolaketarekin bat etorriz, sistemak adierazita izango dituzte, ibilbideak, ibilgailuak eta langileak argiro zehaztuta.

Informazio gisa, ematen dira zerbitzuko ibilbideak, ibilgailuak eta egun zerbitzua emateko erabiltzen den edukiontzi kopurua:

- Egungo ibilbide eta ibilgailuak

ALBOKO KARGA GAUEZ: 25 m³-ko 6 ibilgailu trinkotzaile.

- Erdigunea
- Amara
- Aiete
- Altza
- Ulia
- Martutene

ALBOKO KARGA GOIZEZ: 25 m³-ko ibilgailu trinkotzaile 1.

Antiguo

ATZEKO KARGA GAUEZ: 12 m³-ko ibilgailu trinkotzaile 1.

- Alde Zaharra eta Ekialdea (hiriko ekialdea eta mendebaldea Urumea ibaiak banantzen ditu)

ATZEKO KARGA GOIZEZ: 12 m³-ko ibilgailu trinkotzaile 1.

- Mendebaldea

ATZEKO KARGA GAUEZ HIRIKO SARBIDE ZAILEKO TXOKOETAN: 5 m³-ko ibilgailu trinkotzaile 1.

-Hiri osoa

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

- Edukiontzi kopurua

Gaur egun gainazalean daudenerrefuxarako edukiontzi kopurua honako hau da:

- Alboko karga: 1.100 unitatea
- Atzeko karga 400 unitate

Gaur egun, lurpean dauden errefuxarako edukiontzi kopurua honako hau da:

- Alboko karga: 86 unitate 86 hobitan
- Atzeko karga: 20 unitate 6 hobitan

Egun zerbitzuan diren lurpeko edukiontzien bilketa ibilbideen barnean sartuko da. Lurpeko edukiontziak biltzeko zerbitzuen puntuak gaineratzeak horiek beregain hartzeko betebeharra ekarriko dio esleipendunari. Lurpeko edukiontziak biltzeko zerbitzura bilketa-puntuak gaineratu edo kentzeak kontratua aldatzea ekarriko du soilik lurpeko edukiontzi kopuruak suposatzen badu kontratuaren hasieran zeudenlurpeko edukiontzi kopurua % 10 baino gehiagoan areagotu edo gutxitzea.

Lizitatzaileak, ezarritako zerbitzuaren lagungarri, **Aurre-Bilketa** zerbitzu bat aurkeztuko du bere eskaintzan, eta errefuxa eta organikoko edukiontzietatik kanpo dauden hondakin guztiak baztertuko ditu (kartoiak, poltsak, hondakinak, etab.), gaueko txandan nahiz goizeko txandan, "errefuxa" frakzioaren bilketarako ordutegi eta maiztasunera egokituz. Gaur egun, hiri osorako aurre-bilketako 7 ibilbide daude. Horiek Porter erako kaxa irekiko ibilgailu laguntzaile batekin egiten ditu Peoi-gidari batek, gaueko jardunaren ½ ematen duena (23.00-02:42 bitartean) zeregin horietan. 02:42-06:24 bitartean ibiltzen diren 7 ekipo horietako bat goizeko txandan Antiguoko alboko kargako ibilbidearen aurre-bilketa egiteaz arduratzen da. Lizitatzaileak zein bitarteko erabiliko dituen azaldu beharko du xehetasun osoz.

Orientabide gisa, I. ERANSKINA erantsi da, egungo zerbitzuaren ibilbide garrantzitsuenen planoekin.

7. artikulu.- "Errefuxa" erako hondakinen bilketa-sistemak Alde Zaharrean, Kaian eta Ekialdeko Zabalgunean.

Plegu honen ondorioetarako, "Alde Zahar" modura ulertzen da Mari kalearen eta San Juan kaleko zenbaki bakoitiaren artean dagoen hiri-perimetroaren barnean kokatutako higiezinen eremua.

"Ekialdeko Zabalgune" modura ulertzen da San Juan kaleko zenbaki bikoitien aldearen eta Paseo Berriaren artean dagoen hiri-perimetroaren barruan kokatutako higiezinen eremua.

"Kai" modura ulertzen da Mari kalearen eta Jacques Cousteau plazaren, Paseo Berriaren hasieran, artean dagoen hiri-perimetroaren barruan kokatutako higiezinen eremua.

Donostiako Alde Zaharrean ostalaritza eta dendetatik datorren "errefuxa" erako hondakina atez ate jasoko da, indarrean den Hondakinen Bilketarako Ordenantzan adierazitako ordutegiekin bat etorriz. Etxean sortutakoak Alde Zaharrean dauden lurpeko edukiontzietan eta auzoaren aldirietan dauden gainazalekoetan bilduko dira.

8 .artikulua.- Bilketaren maiztasuna.

Gaur egun, Alde Zaharrean izan ezik, "errefuxa" erako hondakinen edukiontzi guztiak astean zazpi egunetan

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

biltzen dira, igandeak eta aste barruko jaiegunak barne, abenduak 24 eta 31 salbuetsita. Lizitatzaileak, ibilbideekin batera, edukiontzi bakoitzari dagozkion egunak zein diren adierazi beharko du.

Bilketaren maiztasuna, hiri osoan, Alde Zaharrean izan ezik, aldakorra izango da, betiere, betetze-mailari dagokionez, % 100eko edukiera gainditzen ez badu.

Donostiako Alde Zaharrean indarrean den Hiri Hondakin Solidoak Biltzeko Udal Ordenantzan jasotzen dena izango da, gaur egun, astelehen, ostegun eta larunbatetan, 10:00etatik aurrera.

Artikutzako lursailean bilketa, gutxienez, 14 egunetik behin egingo da.

9. artikulua.- Bilketa-ordutegia

Bilketa-ordutegia hiri osoan, alde Zaharra salbuetsita, gaur egun gauean zeharrekoa da gehienbat, 6. artikuluan adierazitako zerbitzuaren kasuan izan ezik.
Bilketa gauean zeharrekoa izanez gero, 23:00tan hasiko da, eta une horretatik aurrera gauzatu beharko da berehala, eta bilketa guztia zerbitzua amaitutzat eman baino lehen bukatu beharko da, behar bezala justifikatutako behartutako egoeraren bat gertatu ezean.

Donostiako Alde Zaharrean bilketa-ordutegia indarrean den Hiri Hondakin Solidoak Biltzeko Udal Ordenantzan jasotzen dena izango da, gaur egun, astelehen, ostegun eta larunbatetan, 10:00etatik aurrera.

10. artikulua- Zerbitzuaren aldaketa

Edukiontziak jarri ondoren, edozein arrazoirengatik gainerako edukiontzien kopurua % 5 baino gehiago gutxitzen edo handitzen bada, edukiontzien mantentze- eta garbiketa-zerbitzua gutxitzen edo handitzen bada, bilketa-maiztasuna edo ibilbideak aldatzen badira, kontratua aldatu beharko da, eta, horren ondorioz, horren kostua murriztu edo handitu egingo da.

11. artikulua- Plantara garraiatzea.

Esleipendunak horretarako ezarritako puntuetan utziko ditu "errefuxaren" bilketatik datozen hondakinak, eta haren ardura izango da horiek uzteko zentroetan onar daitezen kudeaketa eta izapideak egitea. Gaur egun GIG1 (Gipuzkoako Ingurumen Gunea 1)

Era berean, esleipendunak edukiontzietatik kanpo, bere ingurutik hurbileko zonetan, bildutako hondakinak sailkatu egin beharko ditu, eta ondoren horietako bakoitza dagokion gordailura eraman beharko ditu edo baimendutako kudeatzaileen eskura ipini beharko ditu. Hor, era guztietako hondakinak sartzen dira, "arriskutsu" modura katalogatzen direnak barne. Hondakin horiek bildu eta kudeatzearen kostua enpresa esleipendunak hartuko du beregain.

- "ORGANIKO" ERAKO HONDAKINAK BILDU ETA PLANTARA GARRAIATZEA

12. artikulua.- Hondakin "organikoaren" definizioa.

Hondakin organikotzat hartzen da etxeetan edo merkataritza-jardueretan sortutako animalia jatorriko edo jatorri begetaleko hondakina, sukaldean prestatuta egon zein ez, SANDACH (Gizakiaren Kontsumorako ez diren Animalia Azpiprodukuak) araudiaren mende dauden animalia jatorriko hondakinak eta, araudi eta

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

ordenantzen ondorioz, baimendutako kudeatzaileen bildu eta tratatzekoak diren eta udal bilketan sartzen ez diren hondakinak salbuetsita.

Informazio modura, 2020. eta 2021. urteetan, edukiontzietatik "organiko" erako 4.902,52 eta 5.64 tona hondakin bildu ziren. Datu horiek pandemiak baldintzatuta daude.

13. artikulua.- Hirian "organiko" erako hondakinak biltzeko sistemak, hiriko Alde Zaharrean **izan ezik**.

Hondakin mota hori hiri osoan, Alde Zaharrean izan ezik, sarraila elektronikoz hornitutako kolore marroiko gainazaleko edukiontzi bidez bildu da.

Lizitatzaileek **ibilbide egokienak proposatuko dituzte** eta, eskaintzen duten zerbitzuaren antolaketarekin bat etorriz, sistemak adierazita izango dituzte, ibilbideak, ibilgailuak eta langileak argiro zehaztuta.

Egungo ibilbide eta ibilgailuak

ALBOKO KARGA GAUEZ: 25 m³-ko 2 ibilgailu trinkotzaile.
- Hiri osoan Alde Zaharrean izan ezik

ATZEKO KARGA MENDEBALDEAN: 12 m³-ko ibilgailu trinkotzaile 1

ATZEKO KARGA EKIALDEAN: 12 m³-ko ibilgailu trinkotzaile 1

ATZEKO KARGA GAUEZ ALDE ZAHARREAN: 5 m³-ko ibilgailu trinkotzaile 1
- Ostiral eta larunbatetan

ATZEKO KARGA ARRATSALDEZ ALDE ZAHARREAN: 5 m³-ko ibilgailu trinkotzaile 1
- Igandetik ostegunera.

Hori da hiriko Gutxieneko Oinarrizko Bilketa Zerbitzua. Lizitatzaileak hori bete edo hobetu beharko du, bi kasuetan lortu asmo den errendimendu egokia argudiatuz.

Gaur egun, hirian, Alde Zaharrean izan ezik, soilik organikorako edukiontzi kopurua honako hau da:

- Alboko Bilketa: 549 unitate
- Atzeko bilketa 69 unitate

14. artikulua.- "Organiko" erako hondakinen bilketa-sistemak Alde Zaharrean.

Donostiako Alde Zaharrean, **ostalaritza eta dendetan sortutakoak** atez ate bilduko dira, eta etxean sortutakoak Alde Zaharrean dauden **edukiontzi-garraiagailuetan** eta Narrika eta Mari kaleetan dauden lurpekotan bilduko da

Edukiontzi-garraiagailu kopurua = 14

15 .artikulua.- Bilketaren maiztasuna.

Hondakin "organikoko" edukiontzi guztien bilketa, Alde Zaharrean izan ezik, astean 2 eta 3 aldiz egingo da, edukiontziaren arabera. Lizitatzaileak, ibilbideekin batera, edukiontzi bakoitzari dagozkion egunak zein diren

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

adierazi beharko du.

Bilketaren maiztasuna, hiri osoan, Alde Zaharrean izan ezik, aldakorra izango da, betiere, betetze-mailari dagokionez, % 100eko edukiera gainditzen ez badu.

Donostiako Alde Zaharrean bilketa-maiztasuna eta -ordutegia indarrean den Hiri Hondakin Solidoak Biltzeko Udal Ordenantzan jasotzen dena izango da. Gaur egun, hondakin organikoa egunero biltzen da.

16. artikulua.- Bilketa-ordutegia

Bilketa-ordutegia hiri osoan, alde Zaharra salbuetsita, gaur egun gauean zeharrekoa da gehienbat.
Bilketa gauean zeharrekoa izanez gero, 23:00tan hasiko da, eta une horretatik aurrera gauzatu beharko da berehala, eta bilketa guztia zerbitzua amaitutzat eman baino lehen bukatu beharko da, behar bezala justifikatutako behartutako egoeraren bat gertatu ezean.

Hiriko Alde Zaharrean hondakin organikoaren bilketa 00:00tan hasten da ostiral eta larunbatetan, eta 16:30etan igandetik ostegunera. Azken urteotan ostalaritza-jarduera areagotu egin denez, ekainaren 15etik irailaren 30era, bi bilketa egingo dira ostiralero, bat arratsaldez eta beste bat gauez.

17. artikulua- Zerbitzuaren aldaketa

Edukiontziak jarri ondoren, edozein arrazoirengatik edukiontzi organikoen kopurua % 10 baino gehiago gutxitzen edo handitzen bada, edukiontzien mantentze- eta garbiketa-zerbitzua gutxitzen edo handitzen bada, bilketa-maiztasuna edo ibilbideak aldatzen badira, kontratua aldatu beharko da, eta, horren ondorioz, horren kostua murriztu edo handitu egingo da.

18. artikulua- Plantara garraiatzea.

Esleipendunak horretarako ezarritako puntuetan utziko ditu "organikoaren" bilketatik datozen hondakinak, eta haren ardura izango da horiek uzteko zentroetan onar daitezen kudeaketa eta izapideak egitea. Gaur egun GIG2 (Gipuzkoako Ingurumen Gunea)

Era berean, esleipendunak edukiontzietatik kanpo, bere ingurutik hurbileko zonetan edo bilketa berezietatik datozenak, bildutako hondakinak sailkatu egin beharko ditu, eta ondoren horietako bakoitza dagokion gordailura eraman beharko ditu edo baimendutako kudeatzaileen eskura ipini beharko ditu. Hor, era guztietako hondakinak sartzen dira.

- "ERREFUXA" ETA "ORGANIKO" ERAKO EDUKIONTZIEN ETA ELEMENTU OSAGARRIEN GARBIKETA, MANTENUA ETA ALDAKETA

19. artikulua.- Xedea.

Kontratuak irauten duen bitartean esleipendunak edukiontziak baldintza higieniko eta sanitario bikainean izatea bermatu behar du, itxura estetiko egokia izateaz gain.

Esleipendunaren betebeharra izango da edukiontzi guztiak barnetik zein kanpotik arduraz garbitu eta desinfektatzea, hala gainazalean daudenena nola lurpean daudenena. Garbiketa horren barnean lurpeko

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobierno Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

edukiontzien "buzoiak" eta Aldez Zaharrean hondakin organikoa biltzeko edukiontzi-garraiagailuak sartzen dira.

Era berean, esleipenduna edukiontzi guztien osoko kontserbazio eta mantenua egitera derrigortua dago uneoro erabilera-baldintza bikainetan egon daitezen, horren kostua beregain hartuz.

Edukiontzietan eta horietako osagaietan (lurpeko edukiontzietan nahiz gainazalean dauden edukiontzietan) istripuen edo bandalismoaren ondorioz izandako kalteak esleipendunari ordainduko zaizkio aparteko faktura batean, Udalak faktura hori onartu ondoren.

Esleipendunak edukiontzietan eta horietako osagaietan (lurpeko edukiontzietan nahiz gainazalean dauden edukiontzietan) istripuen edo bandalismoaren ondorioz izandako kalteen kostuaren % 3 hartu beharko du beregain.

Orientabide gisa, II. ERANSKINA erantsi da, edukiontzien egungo kokapenen planoekin.

Kontratu honen barnean "errefuxarako" zein "organikorako" hornitutako edukiontzi guztiek, UNE arauak hauek bete beharko dituzte:

- UNE-EN 0840-1 2013
- UNE-EN 0840-2 2013
- UNE-EN 0840-3 2013
- UNE-EN 0840-4 2013
- UNE-EN 0840-5 2013
- UNE-EN 0840-6 2013
- UNE-EN 12574-1
- UNE-EN 12574-2
- UNE-EN 12574-3

1) "ERREFUXA" ERAKO EDUKIONTZIEN GARBIKETA, MANTENUA ETA ALDAKETA.

20. artikulua.- "Errefuxarako" egun dauden edukiontzi motak.

Gaur egun, edukiontzien bidezko bilketa alboko eta atzeko kargako edukiontziekin egiten da, lurpekoen plataformen barnean daudenena ere bai.

Gaur egun, edukiontziek, zeintzuen mantenuaz esleipenduna arduratu behar den, ezaugarri hauek dituzte:

Alboko karga:

- Dentsitate handiko polietilenoz fabrikatutako edukiontzia, masan koloreztatua eta U.V. izpien aurrean egonkortua.
- Hauek dira kanpoko elementu metalikoak: besoak, pedala, eta abar altzairu herdoilgaitzean edo 20 mikratik gorako zink bidezko tratamendua duen altzairuan daude fabrikatuta
- Drainatzea gorputzera erantsia.
- Sarraila elektronikorako alojamendurako aukerarekin.
- Gaur egun, alboko kargako edukiontziek 2.400 eta 3.200 litroko edukiera dute.

Atzeko karga

- Dentsitate handiko polietilenoa, masan koloreztatua eta U.V. Izpien aurrean egonkortua
- Drainatzea gorputzera erantsia.
- Altzairuzko karkasako lau gurpil, 200 mm-ko diametrokoak eta 360ºko biraketaz, horietako bit balazta indibidualaz hornituta.

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

- Tapan eskuz eragin ezean erabat ixtea eragozten duen segurtasun-sistemaz hornitua, tapa bortizki mugitzea ekidinez.
- Tapa irekitzeko pedalaz hornituak.
- Sarraila elektronikoen alojamendurako aukerarekin.
- Gaur egun, atzeko kargako edukiontziek 1.000 eta 1.100 litroko edukiera dute.

21. artikulua.- Gaur egun gainazalean dagoen edukiontzi kopurua

- Alboko karga: 1.100 unitatea
- Atzeko karga 400 unitate

22 .artikulua.- Garbiketaren maiztasuna

Edukiontziak, gutxienez, hilean bitan garbitu beharko dira barnetik eta kanpotik urte osoan zehar, ekainaren 15etik irailaren 15era bitartean izan ezik, orduan garbiketa hilean lau aldiz egin beharko baita. Pintaketak eta paperak edo erantsitako beste edozein elementu garbiketarako ezarritako maiztasunarekin kenduko dira. Garbiketa horretan edukiontziak inguratzen dituen bide publikoaren inguraldea sartzen da.

23. artikulua.- Ordutegia.

Garbiketako jardunak, bertatik bertara eginez gero, ordutegi egokitan egingo dira edukiontzien kokapena kontuan izanik, oinezkoei, ibilgailuen zirkulazioari eta egoiliarrei enbarazu egitea ekidinez uneoro. Garbiketa-lanetan, modu mekanizatuan zein eskuz egiten direla ere, ahalik eta eragin gutxiena sorrarazi behar da bide publikoan, eta ez da beste jarduera batzuk oztopatu behar, ezta ibilgailuen eta oinezkoen zirkulazioa ere. Hori dela eta, Lizitatzaileak ordutegi egokienak aurkeztu beharko ditu, behar bezala aztertu eta argudiatu beharko direnak. Kontratuak irauten duen bitartean Udalak ordutegi horiek aldatzeko aukera izango du hirian unean-unean izaten diren premia edo inguruabarren arabera.

24 .artikulua.- Garbiketa motak.

Garbiketa mekanizatua
Esleipendunak edukiontziak modu mekanikoan garbitu beharko ditu, kanpotik zein barnetik. Horretarako, esleipendunak berak jarritako edukiontziak garbitzeko ibilgailuak erabiliko dira. Ibilgailu horiek edukiontzien gainazal guztiak eta barneko nahiz kanpoko puntu guztiak bikain garbitu eta desinfektatuta uzteko sistema egokienez hornituta egongo dira.

Lizitatzaileak xehetasunez aurkeztuko du garbiketa-lanak egiteko hautatutako sistema, bai makineriari dagokionez eta baita erabiltzeko produktuei dagokienez ere. Sistema guztia behar bezala balioetsiko da, eta Udal honek onartu beharko du.

Eskuzko garbiketa
Edukiontziak garbitzeko kamioiek sartu ezin duten lekuetan kokatutako edukiontzietan garbiketa eskuz egingo da. Halaber, garbiketa hori kanpoko zein barneko garbiketa mekanizatu sakonaren osagarri modura egingo da Udalak beharrezkotzat ikusten duen aldiro, horri dagokionez aldizkakotasunak ezar ditzakeelarik, garbiketara bideratutako prezioa areagotu gabe.

- Edukiontzira erantzitako edozein elementu arraro eskuz kendu beharko da.
- Kanpoan zein barnean produktu garbigarri egokiak erabili beharko dira.
- Gainazalak igurtzi egin beharko dira.
- Ur-presio bidezko garbiketa.

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

Lizitatzaileak xehetasunez aurkeztuko du garbiketa-lanak egiteko hautatutako sistema, bai makineriari dagokionez eta baita erabiltzeko produktuei dagokienez ere. Sistema guztia behar bezala balioetsiko da, eta Udal honek onartu beharko du.

25. artikulua.- Ingurunea garbitzeko baldintzak.

Garbiketako jardunen barruan edukiontziek hartzen duten galtzada eta espaloia zein eragin-eremua ere sartzen dira, edukiontzien azpi-azpian dagoen inguruan arreta berezia jarriz.
Bide publikoan egindako garbiketako jardunetan pertsonei zein objektuei sorrarazi ahal zaizkien kalteak esleipendunaren erantzukizuna izango dira.

26. artikulua.- Mantenu-jardunak

Esleipendunak mantentze prebentibo, zuzentzaile eta zaintzaileko zerbitzua izango du erabilgarri, egunero gertatzen diren matxura eta intzidentziak hautematekoa. Hamabost egunean behin esleipendunak egindako berrikuspenei, edukiontziei eta eragiketa zein intzidentziei buruzko txosten bat igorriko du euskarri informatikoan (datu-basea), hautemate-data eta konponketa-data adierazita. Edukiontzien mantenu-zerbitzuak horietan gertatzen diren matxura guztiak konponduko ditu bere kontura, eta horietan ager daitezkeen okerrak arteztuko ditu.

Mantenuak edukiontzi osoari eragiten dio, bertako zati eta elementu guztietan, informazio-eranskinak eta seinaleztapen-eranskinak barne, eta uneoro edukiontzia baldintza bikainetan mantenduko da funtzionamenduari zein itxurari dagokienez, orotariko kolpe, makadura, marratze edo deformazio desagerrarazi beharko direlarik.

Zerbitzuaren esleipendunak edukiontzia egoera onean eta funtzionamendu normalean ipini beharko du, beranduenez, okerra hauteman eta 24 ordutan eta, hori ezinezkoa baldin bada, funtzionamenduari dagokionez baldintza normaletan den beste batekin aldatu beharko du. Bertatik bertara konpondu ahalko da soilik hautemandako okerra garrantzi gutxikoa bada, bestela, tailer edo lokalen batera eraman beharko da konpontzeko. Lanak hondakinak biltzeko zerbitzua oztopatu gabe eta erabiltzaileen erabilgarri jarritako edukiontzien bolumena murriztu gabe egingo dira.

27. artikulua.- Birjarpen-plana

Egun hirian dauden "errefuxa" erako edukiontzien adina kontuan izanik, lizitatzaileak egungo edukiontzi-parkearen egoerari buruzko azterlan bat aurkeztu eta beharrezkotzat jotzen duen handitze edo berritzea proposatu beharko du.

Kontratuaren hasieran erosketa bat egingo da, gutxienez alboko kargako 300 unitate eta atzeko kargako 100 unitate erosiz. Edukiontzi horiek guztiak sarraila elektronikoz hornituta egon beharko dira Udalak bere garaian erabakiko duen balizko irekiera/itxiera baterako. Sarraila horrek bateragarria izan beharko du Udalean hondakin "organikoko" edukiontzietan dagoeneko ezarrita dagoen irakurketa-sistemarekin.

Bere eskaintzan, lizitatzaileak alboko kargako zein atzeko kargako birjartzeko edukiontzien ezaugarri teknikoak aurkeztu beharko ditu, materialak, dimentsioak, irekitze-metodoa edota irisgarritasuna adierazita. Funtzionamenduarekin lotutako ezaugarriei dagokienez, ezingo dira egun dauden edukiontzietakoak baino eskasagoak izan, eta berdinak edo hobeak izan beharko dira.

Kasu guztietan "errefuxaren" edukiontziak kolore grisekoak izan beharko dira, Udalak adierazitako

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

serigrafiekin.

Edukiontziak birjartzeko, arau orokor modura, hala alboko kargako edukiontzien nola atzeko kargako edukiontzien kasuan, tapa errazago irekitzeko tapaz hornitu beharko dira.

Esleipendunak instalatutako edukiontzi eredu ezberdinen ordezko piezen stock nahikoa izango du, unitate osoak barne. Esleipendunak beregain hartuko ditu, ordezko piezak falta izateagatik, edukiontzien mantenu arruntean edo konponketan gerta litekeen atzerapenetik eratorritako erantzukizunak.

Zerbitzuak behar bezala funtziona dezan, biltegian edukiontzi arrunten % 3 eta edukiontzi-eredu bakoitzeko 5 edukiontzi egokitu jarriko dira kontrata egiten den denbora guztian. Edukiontziak erabili ahala, etengabe berrituko dira. Stock hori mantentzearen eta birjartzearen kostua esleipendunak hartuko du bere gain.

Lizitatzaileak edukiontziak birjarri, mantenu, konpondu, kontserbatu eta berritzeko xehetasunezko plan bat aurkeztu beharko dute edukiontzien ezaugarrien arabera. Bertan argi azaldu beharko dute metodologia eta, berrituz gero, eragindako edukiontzi kopurua, mota eta kokapenak adieraziz. Halaber, azterlanean horiek birkokatzeko edo egungo kokaguneak batzeko aukera sartu ahalko da, horrek Zerbitzuari dakarkion onura argi adieraziz. Azterlan hori kontuan izango da bere eskaintzaren balioespenean.

Edukiontzien garbiketa eta mantenua egin ezean edo trakets eginez gero, dagozkion zehazpenak aplikatu ahalko dira.

28. artikulua.- Edukiontziek berezko euste-sistemak izan beharko dituzte, haizearen eraginez ez mugitzea ziurtatzekoak. Esleipendunaren edo Udalaren arabera, kokalekuaren ezaugarri fisikoak direla medio, haizearen eraginpean egotearen ondorioz edo beste edozein arrazoia dela tarteko edukiontzia mugitzeko arriskua areagotu badaiteke, esleipendunak edukiontzia edo haren ingurunea beharrezkoak diren euskarriekin hornitu beharko du. Zamalanen edo haizeak eragindako talkaren ondorioz sortutako kalteengatik ipinitako erreklamazio guztiak Esleipendunak artatu beharko ditu eta, hala badagokio, beregain hartu beharko ditu balizko indemnizazioak.

2) "ORGANIKO" ERAKO EDUKIONTZIEN GARBIKETA, MANTENUA ETA ALDAKETA. SARRAILA ELEKTRONIKOAK KONPOST-POLTSAK SALTZEKO MAKINAK.

29. artikulua.- "Organikorako" egun dauden edukiontzi motak.

Gaur egun, edukiontzien bidez egiten den bilketa, nagusiki, gainazalean 2.200 litroko alboko kargako edukiontzi marroiekin egiten da hiri osoan eta tapa txikiz hornitutako atzeko kargako 1.000-1.100 litroko edukiontziekin alboko kargako edukiontziak fisikoki kokatzea ezinezkoa den eremutan. "Organikoko" edukiontzi horiek guztiak sarraila elektronikoz hornituta daude. Alde Zaharreko edukiontzi-garraiagailuen barruan dauden edukiontziak 240 litrokoak dira.

Gaur egun, edukiontziek, zeintzuen mantenuaz esleipenduna arduratu behar den, ezaugarri hauek dituzte:

Alboko karga:

- Dentsitate handiko polietilenoz fabrikatutako edukiontzia, masan koloreztatua eta U.V. izpien aurrean egonkortua.

- Hauek dira kanpoko elementu metalikoak: besoak, pedala, eta abar altzairu herdoilgaitzean edo 20 mikratik gorako zink bidezko tratamendua duen altzairuan daude fabrikatuta

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

- Drainatzea gorputzera erantsia.
- Sarraila elektronikorako alojamendurako aukerarekin.

Atzeko karga: "errefuxa" biltzeko edukiontzien ezaugarri berekoak dira, sarraila elektronikoz hornitutako tapa txikiaren salbuespenarekin.

Donostiako Alde Zaharrean hondakin organikoa botatzeko edukiontzi-garraiagailuen barnean dauden edukiontziek 240 litroko edukiera dute. Edukiontzi-garraiagailu horiek metalezkoak dira eta aurrealdean ate bat dute plastikozko edukiontzia ateratzeko, eta goran hondakinak sartzeko tapa.

Esleipendunak uniformetasuna mantendu beharko du kontratuan zehar birjartzeko edukiontzien estetikan, Udalak aldez aurretik onarpena eman ondoren.

30. artikulua.- Gaur egun, hirian, Alde Zaharrean izan ezik, dauden gainazaleko "organiko" erako edukiontziak:

- Alboko Bilketa: 549 unitate
- Atzeko bilketa 69 unitate

Gaur egun hiriko Alde Zaharrean soilik organikorako (edukiontzi-garraiagailuak) 14 edukiontzi daude.

31 .artikulua.- Garbiketaren maiztasuna

Edukiontzi guztiak, gutxienez, hilean bitan garbitu beharko dira barnetik eta kanpotik urte osoan zehar, ekainaren 15etik irailaren 15era bitartean izan ezik, orduan garbiketa hilean lau aldiz egin beharko baita. Orotariko pintaketa eta paperak kendu beharko dira adierazitako epean. Garbiketa horretan edukiontziak inguratzen dituen bide publikoaren inguraldea sartzen da.

32. artikulua.- Ordutegia.

Garbiketako jardunak, bertatik bertara eginez gero, ordutegi egokitan egingo dira edukiontzien kokapena kontuan izanik, oinezkoei, ibilgailuen zirkulazioari eta egoiliarrei enbarazu egitea ekidinez uneoro. Garbiketa-lanetan, modu mekanizatuan zein eskuz egiten direla ere, ahalik eta eragin gutxiena sorrarazi behar da bide publikoan, eta ez da beste jarduera batzuk oztopatu behar, ezta ibilgailuen eta oinezkoen zirkulazioa ere. Hori dela eta, Lizitatzaileak ordutegi egokienak aurkeztu beharko ditu, behar bezala aztertu eta argudiatu beharko direnak. Kontratuak irauten duen bitartean Udalak ordutegi horiek aldatzeko aukera izango du hirian unean-unean izaten diren premia edo inguruabarren arabera.

33 .artikulua.- Garbiketa motak.

Garbiketa mekanizatua
Esleipendunak edukiontziak modu mekanikoan garbitu beharko ditu, kanpotik zein barnetik. Horretarako, esleipendunak berak jarritako edukiontziak garbitzeko ibilgailuak erabiliko dira. Ibilgailu horiek edukiontzien gainazal guztiak eta barneko nahiz kanpoko puntu guztiak bikain garbitu eta desinfektatuta uzteko sistema egokienez hornituta egongo dira.

Eskuzko garbiketa
Edukiontziak garbitzeko kamioiek sartu ezin duten lekuetan kokatutako edukiontzietan garbiketa eskuz egingo da. Halaber, garbiketa hori kanpoko zein barneko garbiketa mekanizatu sakonaren osagarri modura

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

egingo da Udalak beharrezkotzat ikusten duen aldiro, horri dagokionez aldizkakotasunak ezar ditzakeelarik, garbiketara bideratutako prezioa areagotu gabe.

- Edukiontzira erantzitako edozein elementu arraro eskuz kendu beharko da.
- Kanpoan zein barnean produktu garbigarri egokiak erabili beharko dira.
- Gainazalak igurtzi egin beharko dira.
- Ur-presio bidezko garbiketa.

Lizitatzaileak xehetasunez aurkeztuko du garbiketa-lanak egiteko hautatutako sistema, bai makineriari dagokionez eta baita erabiltzeko produktuei dagokienez ere. Sistema guztia behar bezala balioetsiko da, eta Udal honek onartu beharko du.

34 .artikulua.- Garbiketaren baldintzak.

Garbiketako jardunen barruan edukiontziek hartzen duten galtzada eta espaloia zein eragin-eremua ere sartzen dira, edukiontzien azpi-azpian dagoen inguruan arreta berezia jarriz.
Bide publikoan egindako garbiketako jardunetan pertsonei zein objektuei sorrarazi ahal zaizkien kalteak esleipendunaren erantzukizuna izango dira.

35. artikulua.- Mantenu-jardunak

Esleipendunak mantentze prebentibo eta zaintzaileko zerbitzua izango du erabilgarri, egunero gertatzen diren matxura eta intzidentziak hautematekoa. Zazpi egunean behin esleipendunak egindako berrikuspenei, edukiontziei eta eragiketa zein intzidentziei buruzko txosten bat igorriko du euskarri informatikoan (datu-basea), hautemate-data eta konponketa-data adierazita. Edukiontzien mantenu-zerbitzuak horietan gertatzen diren matxura guztiak konponduko ditu bere kontura, eta horietan ager daitezkeen okerrak arteztuko ditu.

Mantenuak edukiontzi osoari eragiten dio, bertako zati eta elementu guztietan, informazio-eranskinak eta seinaleztapen-eranskinak barne, eta uneoro edukiontzia baldintza bikainetan mantenduko da funtzionamenduari zein itxurari dagokienez, orotariko kolpe, makadura, marratze edo deformazio desagerrarazi beharko direlarik.

Zerbitzuaren esleipendunak edukiontzia egoera onean eta funtzionamendu normalean ipini beharko du, beranduenez, okerra hauteman eta 24 ordutan eta, hori ezinezkoa baldin bada, funtzionamenduari dagokionez baldintza normaletan den beste batekin aldatu beharko du. Bertatik bertara konpondu ahalko da soilik hautemandako okerra garrantzi gutxikoa bada, bestela, tailer edo lokalen batera eraman beharko da konpontzeko. Lanak hondakinak biltzeko zerbitzua oztopatu gabe eta erabiltzaileen erabilgarri jarritako edukiontzien bolumena murriztu gabe egingo dira.

36. artikulua.- Edukiontziak berritu eta birjartzea

Kontuan izanik hirirako zerbitzuaren irismena ez dela oraindik nahikoa, lizitatzaileak egungo edukiontzi-parkearen azterlan bat aurkeztu eta beharrezkotzat jotzen duen handitze edo berritzea proposatu beharko du. Kontratuaren hasieran, gutxienez, alboko kargako 160 unitate eta atzeko kargako 40 unitate ziurtatu beharko dira, hiriko Alde Zaharrerako 15 edukiontzi-garraiagailuz gain. Esleipendunak eskuratutako edukiontzi horiek egun dagoeneko ezarrita dagoen sistemarekin bateragarria den sarraila elektronikoz hornitu beharko dira.

Bere eskaintzan, lizitatzaileak alboko kargako zein atzeko kargako birjartzeko edukiontzien ezaugarri teknikoak aurkeztu beharko ditu, materialak, dimentsioak, irekitze-metodoa edota irisgarritasuna adierazita. Funtzionamenduarekin lotutako ezaugarriei dagokienez, ezingo dira egun dauden edukiontzietakoak baino

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

eskasagoak izan, eta berdinak edo hobeak izan beharko dira.

Kasu guztietan "organikoaren" edukiontziak kolore marroikoak izan beharko dira, Udalak adierazitako serigrafiekin.

Edukiontziak birjartzeko, arau orokor modura, atzeko kargako edukiontzi guztiak tapa errazago irekitzeko tapaz hornitu beharko dira.

Esleipendunak instalatutako edukiontzi eredu ezberdinen ordezko piezen stock nahikoa izango du, unitate osoak barne. Esleipendunak beregain hartuko ditu, ordezko piezak falta izateagatik, edukiontzien mantenu arruntean edo konponketan gerta litekeen atzerapenetik eratorritako erantzukizunak.

Zerbitzuak ongi funtziona dezan, kontratuak irauten duen bitartean, eredu bakoitzeko edukiontzien % 2 izango da biltegian. Horiek birjarri egingo dira uneoro, erabiltzen diren heinean. Stock horren mantenuari eta birjarpenari dagokion kostua esleipendunak hartuko du beregain.

Lizitatzaileak edukiontziak birjarri, mantenu, konpondu, kontserbatu eta berritzeko xehetasunezko plan bat aurkeztu beharko dute edukiontzien ezaugarrien arabera. Bertan argi azaldu beharko dute metodologia eta, berrituz gero, eragindako edukiontzi kopurua, mota eta kokapenak adieraziz.
Edukiontzien garbiketa eta mantenua egin ezean edo trakets eginez gero, dagozkion zehazpenak aplikatu ahalko dira.

37. artikulua.- Edukiontziek berezko euste-sistemak izan beharko dituzte, haizearen eraginez ez mugitzea ziurtatzekoak. Esleipendunaren edo Udalaren arabera, kokalekuaren ezaugarri fisikoak direla medio, haizearen eraginpean egotearen ondorioz edo beste edozein arrazoia dela tarteko edukiontzia mugitzeko arriskua areagotu badaiteke, esleipendunak edukiontzia edo haren ingurunea beharrezkoak diren euskarriekin hornitu beharko du. Zamalanen edo haizeak eragindako talkaren ondorioz sortutako kalteengatik ipinitako erreklamazio guztiak Esleipendunak artatu beharko ditu eta, hala badagokio, beregain hartu beharko ditu indemnizazioak.

38. artikulua.- Lizitatzaileen bilketa-eredu bakoitzerako ibilbideak definituko dituzte, era berean, mota bakoitzeko edukiontzi kopurua zehaztuz.

39. artikulua.- "Organiko" erako edukiontzietako (edukiontzi-garraiagailuak barne) sarraila elektronikoen mantenua, irakurketa eta birjarpena.

Gaur egun, hondakin "organikoak" biltzeko edukiontzi guztiak txartel magnetikoarekin eragindako sarraila elektroniko bidez irekitzen dira. Esleipenduna arduratu beharko da sarraila horiek mantendu, horietako datuak irakurri eta birjartzeaz. Esleipenduna hondakin "organikoko" edukiontzi-parkea areagotzean gaineratzen diren sarraila berrien mantenuaz arduratu beharko da.

Mantenua:

Egun instalatuta dauden sarrailak ezaugarri ezberdinekoak dira eta modu ezberdinean funtzionatzen dute. Hiru hornitzaile ezberdin daude eta horrela daude sakabanatuta:

- SEIGARBOST markako 15 unitate, Alde Zaharreko edukiontzi-garraiagailuetarako.
- SEIGARBOST markako 10 unitate, 1.100 litroko atzeko kargako edukiontzietarako.
- SEIGARBOST markako 64 unitate, 2.200 litroko alboko kargako edukiontzietarako.
- DORLET markako 50 unitate, 1.100 litroko atzeko kargako edukiontzietarako.

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

- DORLET markako 492 unitate, 2.200 litroko alboko kargako plastikozko edukiontzietarako.
- SALTO markako 2 unitate, Zubieta auzoko Garbi Txikian.

Sarraila guztien mantenua eta piezen birjarpena sartuta dago kontratuko prezioan. Esleipendunak bere eskaintza ekonomikoan mantenu horri eta sarrailen birjarpenari dagokion unitateko prezioa banakatu beharko du.

Irakurketa

Udal zerbitzarietan datuak modu automatikoan jasoko dira SEIGARBOST sarraileta rako, telefono mugikorreko saretik, SIM txartel bidez.

DORLET markako edukiontzietako sarrailek gordetzen dituzten datuen irakurketa kamioiek egin dute hondakin "organikoa" biltzen duten unean IRRATI bidez, kamioian gaineratutako gailuekin. Gailu horietako antena DORLET markak ematen du eta, gutxienez, astean behin esleipendunak datuak Udalaren zerbitzarietan irauli behar ditu.

SALTO markako sarrailek jasotako datuak zuzenean gordetzen dira Udalaren zerbitzarietan.

40. artikulua.- Konpost-poltsak saltzeko makinen mantenua eta horiek betetzea.

Etxeetan erabiltzeko konpost-poltsak DORLET enpresak jarritako 18 saltzeko makinen bidez banatzen dira. Esleipendunak beregain hartu beharko du makina horien mantenua, eta konpost-poltsen paketeak Udalak beharrezkotzat jotzen duen maiztasunez birjarri beharko ditu, makinak inoiz poltsarik gabe gera ez daitezen.

41. artikulua.- Ez da kontratu honen xede konpost-postak banatzea, Udalak emango ditu horiek.

- LURPEKO EDUKIONTZIEN GARBIKETA ETA MANTENUA.

42. artikulua.- Gaur egun lurpeko edukiontziak hartzeko dagoen hobi kopurua honako hau da: 92 hobi daude, horrela banatuta:

- Alboko karga: 86 unitate 86 hobitan
- Atzeko karga: 20 unitate 6 hobitan

43. artikulua.- Mantenua

Enpresa lizitatzaileak lurpeko edukiontziekin bilketa egiteko sistemaren osoko mantenuaz arduratu beharko dira, bai lizitazioaren unean daudenena, baiz kontratuak irauten duen bitartean gaineratzen direnena. Mantenu-lanetan sartzen dira, besteak beste, honako hauen konponketak eta aldaketak:

- Elementu mekanikoak
- Sistema hidraulikoak
- Sistema elektrikoak
- Kontrol- eta eragintza-sistemak
- Drainatze-sistemak
- Obra zibila, barnekoa zein kanpokoa.
- Barnean sartutako edukiontziak (ontziak)

Gainazaleko edukiontzien mantenuan bezalaxe, esleipendunak mantentze prebentibo eta zaintzaileko zerbitzua izango du erabilgarri, egunero gertatzen diren matxura eta intzidentziak hautematekoa.

Esleipendunak sistemen hornitzaile ezberdinei dagozkien ordezko piezen stock bat izan beharko du uneoro

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

funtzionamenduan, lurpekoa, gehienez, 24 ordutan konpontze aldera.

24 ordu baino gehiagoan gelditzea dakarren matxura garrantzitsuren bat gertatuz gero, esleipendunak lurpeko edukiontziaren aldamenean gainazaleko bat jarri beharko du lurpeko edukiontziaren buzoia baliogabe utzita matxurak irauten duen bitartean edo poltsa bidezko bilketa egingo du, espazioak eragina edukiontzia ipintzea ezinezkoa izanez gero.

44. artikulua.- Udalak lurpeko edukiontzi kopurua areagotzea erabakiko balu, esleipenduna arduratu beharko da horien mantenu eta garbiketaz. Mantentzeko lurpeko edukiontziak gaineratu edo kentzeak kontratua aldatzea ekarriko du soilik mantentzeko lurpeko edukiontzi kopuruak suposatzen badu kontratuaren hasieran zeuden lurpeko edukiontzien kopurua % 10 baino gehiagoan areagotu edo gutxitzea.

45. artikulua.- Lurpeko edukiontzien instalazioetan (buzoietan, kaxa elektronikoetan, etab.) istripuz edo bandalismoaren eraginez sorrarazitako kalteak esleipendunari ordainduko zaizkio aparteko faktura batean, Udalak faktura hori onartu ondoren.

46. artikulua.- Garbiketa

Lurpeko plataformen barruan dauden edukiontzien kasuan, garbitasunari nahiz mantenuari dagokienez, gainazaleko edukiontzietarako bete beharreko protokolo berdinak bete beharko dira.
Plataformak eta hobiak barrutik eta kanpotik garbitu beharko dira, barnean pilatuz joan diren hondar guztiak atereaz.
Osoko garbiketa hori, aurreko lerroaldean azaldutako guztia barne, hilean behin egingo da gutxienez, urte osoan.

- HIRIKO ALDE ZAHARREAN PAPER-KARTOIA BILDU ETA PLANTARA GARRAIATZEA

47. artikulua.- Bilketaren ezaugarriak Alde Zaharrean

Indarrean den Hondakinak Biltzeko Ordenantza oinarri hartuta, Alde Zaharreko, Ekialdeko Zabalguneko edo Kaiko merkataritzako paper-kartoiaren bilketa baldintza hauetan egingo da:

a) Jardute-eremua: Mari kalearen eta San Juan kaleko zenbaki bakoitien artean dagoen hiri-perimetroaren barruan kokatutako higiezinak eta San Juan kaleko zenbaki bikoitien aldearen eta Salamanka Pasealekuaren eta Kaiaren artean dagoen hiri-perimetroarekin bat datorren Ekialdeko Zabalguneko higiezinak.

b) Maiztasuna: Astelehenetik larunbatera, lanegunak esklusiboki.

c) Bilketa-ordutegia: 10:15etatik zerbitzua amaitu arte, beranduenez 14:00ak arte.

d) Dendetan sortutako kartoia biltzeko modua: Lokalen ateetan.

Hiriko Alde Zaharreko etxeetan sortutako kartoiaren bilketa ez da kontratu honen konpetentzia. Bilketa hori San Markoseko Mankomunitateari dagokio horretarako gaituta Narrika kaleko lurpeko edukiontzien, Mari kaleko lurpeko edukiontzien eta Ekialdeko Zabalguneko gainazaleko edukiontzien bidez.

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

Zerbitzu horrek Alde Zaharrean ibilgailuak erabiltzen dituzten gainerako zerbitzuekin koordinatuta egon behar du uneoro, elkarren artean oztoporik ez sortzeko.

Bildutako hondarrak Udalak adierazitako birziklapen-plantara edo kudeatzaile baimendura eramango dira, eta birziklapenerako modu egokian helaraziko dira.

Informazio modura, 2020. eta 2021. urteetan, hiriko Alde zaharretik "paper/kartoi" erako hondakin modura 238,20 eta 303,78 tona hondakin bildu ziren. Datua ez da garrantzitsutzat jotzen, zonaldeko ostalaritza-jardunean pandemiak izandako eraginaren ondorioz.

- TAMAINA HANDIKO HONDAKINAK BILDU, HAUTATU ETA PLANTARA GARRAIATZEA

48. artikulua.- Hondakina identifikatzea.

Zerbitzu honetan hiri hondakinak biltzeko udal ordenantzako 43. artikuluan islatzen diren hondakinak biltzen dira.

Tamaina handiko hondakinak dira:

- Altzariak (besaulkiak, sofak, etab.)
- Izakinak
- Koltxoiak eta somierrak
- Lerro zuriko etxetresna elektrikoak (arropa-garbigailuak, hozkailuak...)
- Telebistak
- Gailu elektriko eta elektroniko txikiak (ordenagailuak, irabiagailuak, plantxak, etab.)

49. artikulua.- Eremua

Informazio modura, 2020. urtean bide publikotik, kontratu honen xede dena esklusiboki, "tamaina handiko" hondakin modura 3.006,16 tona hondakin bildu zen, eta 2021. urtean 2.944,2 tona.

Bilketa-eremua hiri hori hondakin solidoak biltzen diren Donostiako udal barruti osoa da, aurrerago zehaztuko diren auzoen salbuespenarekin.

Donostiako Alde Zaharrean ez dira auzo barruan bilketarik egingo, soilik Narrika kaleko eta Mari kaleko lurpeko edukiontzien eta Ekialdeko Zabalguneko gainazaleko edukiontzien aldamenean daudenak bilduko dira.

Kanpoan geratzen dira, Intxaurrondo, Loiola eta Martutene auzoak. Horietan, gaur egun, etxez etxeko bilketa egiten da, plegu honetan jasotzen denaz aparteko kontratu baten bidez. Auzo horietan esleipendunak Ordenantzan adierazitako egun eta datetatik kanpo utzita dauden tamaina handiko hondakinak hartzeko betebeharra du. Hondakin horiek goizeko lehen orduan hartuko dira.

Informazio modura, kontratu honetan SARTZEN EZ DIREN hiru auzo horiek osatzen duten zonak dira:

INTXAURRONDO

Unitate txikiak

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

- MARRUTXIPI
- INTXAURRONDO ZAHARRA
- INTXAURRONDO BERRI
- INTXAURRONDO IPARRALDEA
- INTXAURRONDO HEGOALDEA

Guztira **15.572 biztanle**.

LOIOLA/MARTUTENE

Unitate txikiak

LOIOLA

- LORATEGI HIRIA
- LOIOLA HERRIGUNEA
- KUARTELAK
- PATXILLARDEGI
- TXOMIN

MARTUTENE

- TORRUA ZAHAR
- MARTUTENE
- PORTUTXO
- ELISEO ZELAIAK
- ANTZITA,

Guztira **7.927 biztanle**.

50. artikulua.- Maiztasuna

Bilketa egunez egingo da. Astelehenetik larunbatera egingo da bilketa.
Udalak baldintza horiek aldatu ahal izango ditu beharrezkotzat joz gero. Horrela eginez gero, kontratua eta Ordenantza ere aldatu egingo dira.

Tamaina handiko hondakinen bilketa-zerbitzua egiteko hiria BI zonatan banatuko da: EKIALDEA eta MENDEBALDEA, Ordenantzan ezarritako banaketarekin bat etorriz. Horrela, asteko txandakako hiru egunetan ekialdean jasoko da, eta beste hiru egunetan mendebaldean, ordenantzan ezartzen den eran.

Bi eremuak Urumea ibaiaren ibilguak eta Begiristain Doktorea Pasealekutik igarotzen den banalerro batek banatuta geratuko dira.

Ekialdeko eremuan bilketa astelehen, asteazken eta ostiraletan egingo da eta Mendebaldeko eremuan astearte, ostegun eta larunbatetan.

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

51. artikulua- Zerbitzuaren deskribapena.

Etxeetako altzariak eta izakinak biltzeko zerbitzuan sartzen da, bide publikoan, Hiru Hondakin Solidoen edukiontzien aldamenean, Udal Zerbitzuek hartzeko utzitako etxeko tamaina handiko hondakinen bilketa eta tratamendu plantara garraiatzea.

Enpresa lizitatzaileei dagokie zerbitzua optimizatzeko sistema eraginkorrenak proposatzea eta, horretarako, zerbitzua antolatzeko proiektua zehaztuko dute xehetasun osoz, ibilbide, ibilgailu eta langileekin zerikusia duten alderdiak zehaztuz, bide publikoan 24 ordu baino gehiagoan egon ez daitezen.

Gaur egun, zerbitzua aurretiko zerrenda bidezko sistema batekin egiten da. Horretarako, ohiko zabor-bilketako taldeek tamaina handiko hondakinak zein puntutan dauden hauteman eta apuntatzen dute beren lanaldian zehar. Hala, zerrenda bat osatzen dute, ondoren, tamaina handiko hondakinak biltzeko taldeari helarazten zaiona. Zerrenda hori erreferentzia modura erabiltzen da goiz horretako zerbitzua egiteko, puntu jakin batzuetatik bilketa egitera igaroz, eta aurretiaz hauteman ez badira ere, bilketa-zerbitzuak berak ibilbidean hautematen dituen puntuetatik ere igaroz.

Lizitatzaileek ibilbideak egunean bertan amaitzeko moduan kalkulatu eta doitu beharko dituzte, objektu bakar bat ere 24 ordu baino gehiagoan biltzeko zain geratu gabe.

Bilketan nahiz garraioan objektuak eta materialak erortzea ekiditeko neurri egokiak hartuko dira. Horregatik, maniobran erortzen diren produktuak berehala garbituko dira.

Lizitatzaileak, zerbitzu horren antolaketaren azalpenaren barruan, lanak behar bezala garatzeaz eta, kontrolik gabe utzitako hondakinen kasuan, ikerketa-lana egiteaz arduratuko den arduradun bat adieraziko du, eta pertsona horrek kontrolik gabe utzitako hondakinen kasuan Udalari horren berri eman beharko dio. Arduradun horrek bilketa-zerbitzuko gainerako alderdiekin lotutako informazio-lan zehatzak egingo ditu Zerbitzuaren Buruzagitzaren irizpidez.

52. artikulua- Plantara garraiatzea.

Esleipendunak hondakinak bere izaeraren arabera sailkatuko ditu, gero frakzio bakoitzari dagokion gordailu edo kudeatzaile baimendutara eramateko, gaika bereizi ondoren. Orotariko hondakinak sartzen dira.

- HERRITARREI ZUZENDUTAKO PRESTAKUNTZA ETA SENTSIBILIZAZIO NEURRIAK

53. artikulua- Kontratistak zerbitzua ematen zaien herritarrei zuzendutako prestakuntza- eta sentsibilizazio-neurriak egikaritu beharko ditu, hondakinen prebentzioarekin eta arriskuarekin, berrerabilpenarekin, gaikako bilketarekin, hondakinak berrerabilpenerako eta birziklapenerako prestatzearekin eta hondakinak modu desegokian kudeatu eta zaborra sakabanatuta uztearen ondorioekin lotuta. Hori dela eta, lizitatzaileak egokien jotzen dituen prestakuntza- eta sentsibilizazio-neurriak gaineratu beharko ditu bere eskaintzan.

54. artikulua. -Esleipendunak urtero informazio-kanpainak egiteko betebeharra izango du eta hauek izango dira kontratuaren esleipendun den enpresak emateko prestazioak:

Herritarrak eta ekitaldi publikoetako kudeatzaileak hiri hondakinen kudeaketa egokiari buruz informatu eta horren inguruan sentsibilizatu beharko ditu, gizartea hondakin gutxiago ekoizteko ereduetara eraldatzea, edukiontziak hobeto erabiltzea eta, ondorengo birziklapenera begira, frakzioak gehiago bereiztea lortuz.

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordearen Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

Gainera, kanpainan giza jokabidea hobetzea eta espazio publikoak (kaleak, plazak, haurrentzako parkeak, edukiontzien inguraldea, etab.) ongi erabili eta garbitzea azpimarratuko da.

Diseinatzen den kanpainak, irudiari, esloganari, ideia nagusiei eta korporazio-irudiari dagozkien elementu guztiak izango dituena, komunikazio espezifikoa landu beharko du gizarte-sektore zehatzen arabera, kontuan izanik, horretarako lengoaia jakin bat eta komunikaziorako euskarri, ekintza eta tresna efizienteenak erabili beharko dituela, baina korporazio-irudia mantenduz.

Hauek dira zehaztutako populazio-segmentuak, sektoreen arabera multzokatuta:

A) Publiko orokorra

- Erosteko azturei buruzko sentsibilizazio-ekintzak burutzeko xede-publiko orokorra.
- Bide publikoan hondakinak sortzen dituen publiko orokorra (lurrean utzita, paperontzietan edo edukiontzietan frakzioen arabera).

B) Esparru profesionalak (kudeaketa eta eragina bezeroengan)

- Ostalaritza eta jatetxe arloko establezimenduak (hondakinen barne kudeaketa).
- Hotelak eta ostatuak (hondakinen barne kudeaketa).
- Jatetxe edota hoteletako pertsona erabiltzaileak.
- Turismoa (jarduteko estrategiak: bide publikoa, hondartzak edota ostatuak)
- Merkataritza txikia.
- Merkataritza gune handiak (erosleak eta saltzaileak)
- Zaharberritze-lanetako gremioak (iturginak, pintoreak, igeltseroak, etab.).

IV. KAPITULUA: BALDINTZA ORKORRAK

55. artikulua.- "Gaizki sailkatutako" hondakinak edota "arriskutsuak".

Esleipendunak edukiontzien barruan edo horien inguruan dauden hondakin guztiak bildu eta kudeatu beharko ditu, arriskutsuak barne, hondakin bakoitzaren arau espezifikoetan ezarritako prozedura eta protokoloak betez eta kudeatzaile baimenduen eskura ipiniz, gastuak esleipendunaren kontura izango direlarik.

Udalak finkapenetatik, kontrolik gabeko zabortegietatik edo beste era bateko gordailuetatik hondakinak atera beharko balitu, esleipenduna arduratuko da lan horiek egiteaz. Gehienez urtean 20.000 euroko zenbateko bat esleitzen da eta esleipendunari Udalak onartu ondoren ordainduko zaio zenbateko hori.

56. artikulua.- Kokapena

Bide publikoan edukiontziak aparkalekuetan eta horretarako berariaz egindako espaloietako sarguneetan kokatuko dira. Aurrez adierazitako moduan kokatu ezin badira, espaloiaren gainean jarriko dira, uneoro irisgarritasunarekin eta hirigintza-oztopoak kentzearekin lotuta indarrean dauden arauak betez, eta betiere Udalaren onarpenarekin.
Edukiontziak ipintzen diren aparkalekuetan erreserbak gaituko dira, edukiontziak mugitu ez daitezen, eta ibilgailuek espazioak inbaditu ez ditzaten.
Espaloiaren gainean kokatu behar badira, eta oinezkoentzat arriskutsuak diren desplazamendu edo mugimenduak ekiditeko, zedarriztatzeko eta eusteko elementuak ere jarri ahalko dira, beharrezkotzat jotzen bada.

57. artikulua.- Erreserbak bide publikoan

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

Edozein dela ere edukiontzi mota edo bere tamaina, bide publikoan erreserbak metalezko elementuekin egitea lehenetsiko da, esate baterako, zilindro formako oin trinkoak edo gutxienez 7 cm-ko kanpoko diametroa duen tutuz egindako arkuak, beroan pintatutako altzairu galbanizatuan edo altzairu herdoilgaitzean eginak, zoladuran ahokatuta, espaloiaren sestra gainean gutxienezko 80 cm-ko altuera izateko moduan, ibilgailuen barnetik ikusteko modukoak izateko eta zaborrak uzteko garaian erabiltzaileei oztopo ez egiteko eta oinezkoen artean istripurik ez eragiteko moduan.

Kokatu beharreko oin kopuruari dagokionez, gutxienez albokako bi unitate jarri beharko dira, eta zeharkako desplazamenduak ekiditeko, gutxienez 40 cm-ko altuerako arkuak jarriko dira, eragindako edukiontziak hartzeko beharrezkoa den luzerarekin.

Esleipenduna arduratuko da edukiontzien puntu berrietarako erreserben espazioak kudeatzeaz.

58. artikulua.- Esleipendunak, kokagunea eta finkatze-sistema zehazteko garaian, indarrean diren Hirigintza Oztopoak Kentzeko araudiak eta Donostiako Udalaren Irisgarritasun Plana zorroztasun osoz bete beharko ditu.

59. artikulua.- Ingurunearen eta edukiontzirako hautatutako sistemaren ezaugarriek horretarako aukera ematen badute, minusbaliotasunak dituzten pertsonen irisgarritasuna ahalbiditzeko moduan diseinatu beharko dira.

60. artikulua..- Hondakinez beteriko ontziak manipulatu edo garraiatzeko lanetan ezingo da inolako hondakinik isuri, eta hori gertatuko balitz, esleipendunak berehala kendu beharko ditu. Horrela, eragindako eremuak garbitu egin beharko ditu, eta horretarako, beharrezkoak diren bitarteko materialak izango ditu erabilgarri.

61. artikulua.- Hondakinak ibilgailu batetik bestera eramatea Ibilgailu batetik bestera ahalik eta hondakin gutxien eramateko ahalegina egingo da, eta egitekotan Udalaren zerbitzuaren baimena beharko da. Edozein kasutan, isuririk eta usain txarrik ez sorrarazteko moduan jardungo da.

62. artikulua.- Errefortzuak ekitaldi finko eta ospakizunetan.

Hirian Udalaren arabera arretaz jarraitzeko moduko noizean behingo ekitaldiak ospatzen direnean, esleipendunak, Udalak eskatuta, aldez aurretik behar beste errefortzuko edukiontzi instalatu beharko ditu eta bilketa-zerbitzu bereziak eman beharko ditu kasu bakoitzean aurreikusten diren garbiketa-zerbitzuekin koordinazioan, Udalarentzat inolako kosturik gabe. Gutxienez, hurrengo taulan azaltzen diren ekitaldi eta bitartekoekin jardun beharko da:

- **Nazioarteko Maratoia**: Organikoa biltzeko 240 litroko 6 edukiontzi (anoa-puntu bakoitzeko bat).
- **Behobia / Donostia:** Errefuxa biltzeko 1.000 litroko 4 edukiontzi; organikoa biltzeko 1.000 litroko 2 edukiontzi
- **5 milien Lasterketa:** Organikoa biltzeko 1.000 litroko edukiontzi 1
- **Oinezko lasterketa:** Organikoa biltzeko 1.000 litroko edukiontzi 1
- **Donostiako Klasikoa:** Errefuxa biltzeko 1.000 litroko 3 edukiontzi; organikoa biltzeko 240 litroko 4 edukiontzi
- **Hiru hondartzen krossa:** Organikoa biltzeko 1.000 litroko edukiontzi 1

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Junta de Gobierno Local - Secretaría

- **Extremadurako ogi-mamien eguna:** Errefuxa biltzeko 1.000 litroko edukiontzi 1; organikoa biltzeko 1.000 litroko edukiontzi 1
- **Euskal Jaiak:** Errefuxa biltzeko 1.000 litroko 6 edukiontzi; organikoa biltzeko 1.000 litroko edukiontzi 1
- **Garagardo azoka:** Errefuxa biltzeko 1.000 litroko edukiontzi 1; organikoa biltzeko 1.000 litroko 2 edukiontzi; organikoa biltzeko 125 litroko 2 edukiontzi
- **Gastronomia Azoka – Tasta Catalunya:** Organikoa biltzeko 1.000 litroko edukiontzi 1
- **Mahas-bilketaren jaia:** Errefuxa biltzeko 240 litroko 4 edukiontzi
- **Groseko Zipotz Jaiak:** Errefuxa biltzeko 1.000 litroko 3 edukiontzi; organikoa biltzeko 1.000 litroko edukiontzi 1
- **Intxaurrondo Zaharreko Jaiak:** Errefuxa biltzeko 1.000 litroko edukiontzi 1
- **Antiguo Auzoko San Joan Jaiak:** Organikoa biltzeko 1.000 litroko edukiontzi 1
- **Txomineko Jaiak:** Errefuxa biltzeko 1.000 litroko 2 edukiontzi
- **Martutene Auzoko Jaiak:** Organikoa biltzeko 1.000 litroko 2 edukiontzi; organikoa biltzeko 125 litroko edukiontzi 1
- **Kaiako Jaiak:** Errefuxa biltzeko 1.000 litroko 4 edukiontzi; organikoa biltzeko 240 litroko edukiontzi 1
- **Garagardo Festa:** Errefuxa biltzeko 1.000 litroko edukiontzi 1; organikoa biltzeko 1.000 litroko edukiontzi 1
- **Kross Berdea:** Organikoa biltzeko 240 litroko edukiontzi 1
- **Lilaton Taldea:** Errefuxa biltzeko 1.000 litroko edukiontzi 1
- **Ferrerias Auzoko Jaiak:** Organikoa biltzeko 1.000 litroko edukiontzi 1
- **Donostiako Hiru Mendiak:** Errefuxa biltzeko 1.000 litroko 2 edukiontzi
- **Igeriketa-trabesia irlara:** Organikoa biltzeko 1.000 litroko edukiontzi 1
- **Galiziaren eguna:** Errefuxa biltzeko 1.000 litroko edukiontzi 1; organikoa biltzeko 1.000 litroko edukiontzi 1
- **Queimada eta Pattarraren Festa:** Errefuxa biltzeko 1.000 litroko edukiontzi 1: Organikoa biltzeko 1.000 litroko edukiontzi 1
- **Erregio etxeen eguna:** Errefuxa biltzeko 1.000 litroko edukiontzi 1; organikoa biltzeko 1.000 litroko edukiontzi 1
- **San Silbestre:** Organikoa biltzeko 1.000 litroko edukiontzi 1
- **Nazioarteko Triatloia eta emakumeen triatloia:** Errefuxa biltzeko 1.000 litroko 4 edukiontzi; organikoa biltzeko 1.000 litroko edukiontzi 1
- **Zinemaldiaren Itxiera:** Errefuxa biltzeko 1.000 litroko 4 edukiontzi; organikoa biltzeko 1.000 litroko edukiontzi 1
- **Sagardo Eguna:** Errefuxa biltzeko 1.000 litroko 4 edukiontzi

63. artikulua.- Edukiontziak husten diren aldiro jatorrizko kokagunean jarri behar dira berriro eta beti karga-ahoa erabiltzaileek espaloitik irisgarri izateko moduan, edukiontziaren eta erabiltzailearen artean inolako oztoporik egon gabe, erabiltzaileak edozein egoera arriskutsuren aurrean babestuta egoteko moduan eta ibilgailuen nahiz oinezkoen trafikoa eragotzi gabe. Atzeko kargako edukiontziak, gainera, galgatzeko gailuak sakatuta eta tapa itxita utziko dira.

64. artikulua.- Udalak edukiontziren bat aldatu behar duela irizten badu, esleipendunak aldaketa hori egin beharko du bide publikoan erreserba mugatzeko finkapenak kokatuz, eta esleipendunak berak hartuko ditu kostuak beregain.
Era berean, bera arduratuko da Udal honek argudiatutako arrazoien ondorioz edukiontziak kendu eta ondoren kokatzeaz.

65. artikulu.- Esleipenduna arduratuko da beharrezkoak diren aparkaleku-erreserbak izapidetzeaz

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

edukiontziak mugitzea beharrezkoa den aldiro.

66. artikulua.- Bilketan ariko diren ibilgailuek ezinbestekoak diren geldialdi eta maniobrak soilik egingo dituzte, uneoro pertsona eta ibilgailuen joan-etorri arrunta ez oztopatzeko ahalegina eginez. Horretarako, segurtasunari dagokionez beharrezkoak diren neurriak hartuko dituzte eta Trafikoko Legea betetzea bermatuko dute.

67. artikulua.- Plantara garraiatzea.

Esleipendunak bere bitartekoekin bilketa burutu eta berehala Udalak adierazitako gordailuetara eramango ditu hondakinak, edo kudeatzaile baimenduei helaraziko dizkie, eta gordailutze hori kudeatuko du Udalak egiaztatu eta igorritako berariazko baimena behar denean izan ezik.
Gaur egun, errefuxa eta organiko erako hondakinak Gipuzkoako Ingurumen Gunera eramaten dira.

68. artikulua.- Esleipendunaren ardura izango da plantetan edo kudeaketa-puntutan uzteko dokumentazioa eskatzen duten hondakinei dagozkien izapide guztiak.

69. artikulua.- Kontainerizazio-plana

Donostiako Udalak, 2018. urtean, hiri guztiaren kontainerizaziorako plan bat egin zuen. Kontainerizazioak kokapenak birbanatzea eskatzen du, frakzio guztietako edukiontziz hornitutako kokapenak lortzeko ahalegina eginez, solte dauden edukiontziak ekidinez eta "errefuxa" erako edukiontzi kopurua murriztu eta "organiko" erako edukiontzi kopurua areagotuz.

Orain arte, Aiete, Altza, Amara Berri, Intxaurrondo, Miramon-Zorroaga, Añorga eta Martuteneko auzoen kontainerizazioa burutu da.

Esleipendunak kontratuaren lehendabiziko bi urtetan, hiriko gainerako auzoen kontainerizazioa gauzatu beharko du. Kontainerizazioaren gastua lizitatzaileak aurkeztu beharreko eskaintza ekonomikoaren barruan sartuko da eta sarraila elektronikoz hornitutako hondakin "organikoen" edukiontziak erostea eskatuko du, eta kokapen berriak banatzeko hainbat mugimendu egin beharko dira. Halaber, edukiontzi horien gaineko mantenua beregain hartuko du, sarrailak, horietako datuen irakurketa eta gerta litezkeen ustiaketa-gastuak barne.

Kontainerizazioaren edo beste arrazoi batzuen ondorioz "errefuxa" erako edukiontzi kopurua murriztuko balitz, edukiontzien mantenu eta garbiketa zerbitzua murriztuko baltiz, bilketaren maiztasuna gutxiagotuko balitz edo ibilbide kopurua murriztuko balitz, kontratua aldatu egin beharko da, kostuan dagokion murrizketa aplikatuz.

Orientagarri modura, KONTAINERIZAZIO PLANAREN egikaritze-azterlana jasotzen duen III. ERANSKINA helarazten da. Eranskin horretan, auzo bakoitzerako, kontainerizazioak edukiontzi kopuruan dakarren gorakada eta beherakada laburtuko duen taula bat azalduko da. Kontratu honek "errefuxa" eta "organiko" erako hondakinen edukiontzien dagokien kontainerizazioaren zatia hartzen du, birziklapeneko edukiontziei dagokion zatia San Markoseko Mankomunitateak hartzen du beregain. Udalak koordinatuko ditu lanak.

V. KAPITULUA – LANGILEAK

70. artikulua .- Kontratu hau subrogatu egiten da. Lizitatzaileak bere eskaintzan kontuan izan beharko du

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

hori derrigorrez, Udalak Administrazio Baldintza Partikularren Pleguetan aurreikusiz emango duen subrogatzeko langileen zerrenda oinarritzat hartuta, horien V. gehigarriaren bidez.

71. artikulua.- Enpresa lizitatzaileek kontratuaren xede diren zerbitzuei buruz egindako azterlanetako emaitzen ondorioz, plantillari buruzko aurreikuspen xehetasunezko proposamena aurkeztuko da azaldutako egiteko eragiketa bakoitzerako, horrela banakatuta:

- Lanak egiteko beharrezkoa den zuzeneko langileen profil profesionala honako hau izango da:

a) Peoia
b) Peoi Gidaria
c) Peoi Espezialista
d) Peoi makinista
e) Gidaria
f) Langileburua
g) Arduraduna
h) Indarreko hitzarmenean jasotzen diren beste zenbait kategoria.

- Oporraldietan, lan-absentismoaren ondoriozko bajak, gaixotasunak, istripuak, sindikatu-orduak edo behar bezala justifikatutako beste zenbait arrazoi daudenean, lanak egikaritzea ziurtatzeko langile aldetiko premiak berehala asetzea. Ordezkapenak postuari esleitutako kategoria bereko edo handiagoko langileekin egingo dira.

- Kontratu honen kudeaketara bideratutako eta enpresak zehazteko zuzeneko gainerako langileak izan litezke:

  a) Kalitate Kontrola
  b) Ingurumenarekin lotutako Barneko Neurriak
  c) Tailerreko langileak
  d) Biltegiko langileak
  e) Kontratuko administrazio-lanak

Halaber, zerbitzuetara esleitutako zeharkako langile guztien xehetasunezko zerrenda aurkeztu beharko dute horien funtzionamendu egokia bermatze aldera, horrela banakatuta:

- Zuzendaritza, teknikariak eta zerbitzuetako zainketa.
- Administrazioa.
- Beste zenbait zerbitzu.

72. artikulua.- Kontratuak irauten duen bitartean, kontratua hasten den plantillarekiko, besteak beste, erretiroagatik, heriotzagatik, borondatezko bajagatik, kaleratzeagatik edota ezintasun iraunkorragatik aldaketaren bat gertatzen den aldiro, edo zerbitzuaren premien ondorioz aldaketaren bat gertatzen den aldiro, esleipendunak Udalari horren berri eman beharko dio lanpostuetan gerta daitezkeen aldaketak betetzeko.

73. artikulu.- Esleipendunak langile bat izendatu beharko du derrigorrez Enpresako Ordezkari eta kontratatutako zerbitzu guztien arduradun zuzen modura. Pertsona horrek harreman zuzena izango du Donostiako Udaleko udal arduradunekin.

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

74. artikulua.- Udalak ez du harreman juridiko, laneko edo beste erakorik izango esleipendunaren langileekin, kontratuak irauten duen bitartean, ezta hura amaitzean ere, eta esleipendunaren kontura izango dira kontratu honen ondorioz sortzen diren betebehar, indemnizazio eta erantzukizun guztiak.

Langile guztiek behar bezala identifikatuta egon beharko dute, gutxienez, txartel pertsonal batekin. Txartel horretan langilearen argazkia eta bere kode pertsonala agertuko dira, eta zer zerbitzukoa den adieraziko da.

75. artikulua.- Zerbitzuetako langile guztiek uniformea jantzi beharko dute. Uniforme mota ez da berdina izango udan edo neguan, eta Udalak onartu beharko du.

Langileentzako arropa kopurua eta haren kalitatea hitzarmen kolektiboetan adostutakoaren araberakoa izango da beti. Edozein kasutan, urtean bi uniforme beharko dira gutxienez, bat negurako eta beste udarako.

Esleipendunaren erantzukizuna izango da langileen garbitasun falta ez izatea, txukun agertzea, janzkeran uniformetasuna agertzea, deskortesiarik ez azaltzea edo auzoekiko tratu txarreko jokabiderik ez izatea, eta zerbitzuak ematean edo lanpostuetarako joan-etorrietan gehiegizko zaratarik ez sortzea.

VI. KAPITULUA – BITARTEKO MATERIALAK

76. artikulua.- Bitarteko material guztiak, ibilgailuak edota material laguntzailea berriak izango dira, gaur egun hondakin "organikorako" erabiltzen diren bi kamioi biltzaile izan ezik. Horiek Udalak jarriko ditu esleipendunaren erabilgarri.

Inbertsio horri berreskuratzeko zenbatekoa, gehi BEZ, URTEKO faktura batekin ordainduko da, inbertsio osoa berreskuratzeko zenbatekoa hamar zati berdinetan banatzearen ondoriozko kopuru finko batekin.

Lizitatzaileek, beren eskaintzetan, behin ibilbideak zehaztuta eta erabiltzeko bilketa-sistema edo zerbitzua finkatuta, zein material mugikor erabiliko duten adieraziko dute, zerbitzua behar bezala emateko beharrezkoa den materiala eta erreserbako materiala argi adieraziz. Azken material horren kasuan, bitarteko titularrak, aldian-aldiko matxuragatik edo errefortzua aldetiko premien ondorioz, ordeztekoak erabiliko dira, edo noizean behingo errefortzu gisa.

Halaber, Alde Zaharreko bilketarako, tamaina handiko hondakinen bilketarako eta soilik organikoko hondakinak biltzeko erabiltzeko bitartekoak zein diren azalduko dute, mota, eredua edota ezaugarriak adierazita. Gauza bera edukiontziak eta bestelakoak garbitu eta mantentzeko erabiltzeko bitartekoei dagokienez. Oro har, Zerbitzuan erabiltzeko material guztiari dagokionez.

77. artikulua.- Plegu honen xede den kontratua sinatzean, espeipendun berriaren eskuragarri jarriko da aurreko kontratuan erabilitako ibilgailuen zerrenda, V. eranskinean atxikitzen dena, eta zerbitzuko erreserba modura geratuko dira horiek esklusiboki.

78. artikulua .- Kontratu honetako xede den zerbitzua emateko Udalak motor elektrikoko tonaje handiko bi ibilgailu jarriko ditu esleipendunaren erabilgarri. Horiez gain, tonaje handiko beste bi ibilgailu arrunt jarriko ditu haren erabilgarri, 8 urtez erabiliak. Ibilgailu horiek alboko kargakoak izango dira, "errefuxa" edo "organiko erako hondakinak biltzeko zerbitzurako eta esleipendunak hartuko ditu bere gain mantenuari dagozkion gastuak.

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza

80. artikulua.- Material mugikorra hautatzeko, 6. eta 14. artikuluetan islatzen diren zenbatekoez gain, Lizitatzaileak bere eskaintza aurkezteko oinarri modura erabiliko dituenak, Zerbitzua emateko kalitate egokiak izan beharko ditu kontuan, bilketa egiteko kamioiena nahiz Zerbitzurako beharrezkotzat jotzen dituen gainerako bitarteko mugikor eta mekanikoena.

Horiek hautatzeko alderdi eta kontsiderazio hauek izango ditu kontuan:

Hondakinen bilketan erabiltzeko ekipamenduak Hiriko ezaugarrietarako egokienak izango dira, ahalik eta errendimendu handiena lortzeko asmoz.
Ibilgailuen karga jarraitua izango da eta ibilgailuen albotik edo atzetik egingo da.
Ibilgailu horien kaxa hermetikoa izango da eta zaborra birrinketa, trinkotze edo konpresio bidez edo beste sistema egoki bat erabiliz jasoko da, karga-edukierari dagokionez ahalik eta errendimendu handiena lortu asmoz.
Materiala diseinatzeko garaian kontuan izango da ongi garbitu ahal izatea, barnetik zein kanpotik. Garbiketa hori egunero egin beharko da ibilgailuaren kanpotik zein barnetik.

Bilketa horretara bideratutako ibilgailuak edukiontziak altxatzeko gailuz hornituta egongo dira, horiek modu mekanikoan husteko. Gailu horiekin sistema bakoitzerako normalizatutako edukiontzi guztiak manipulatu ahal izango dira.

Tamaina handiko hondakinak bildu eta garraiatzeko ibilgailuak karga mekanikoki altxatzeko sistema batekin hornituta egongo dira, esate baterako, garabiak edo plataforma jasotzaileak, eta iraulkitzekoa jasotzekora egokitu beharko da. Proposatutako ibilgailuak teknikoki justifikatu beharko ditu (mota, modeloa, edukiera eta ezaugarriak).

80. artikulua- Bide publikoan lan egiteko erabiltzen diren ibilgailu guztiak ikusgarri izan beharko dira eta gidariarekin batera lan egiten duten beharginentzat derrigorrezko segurtasun-sistemak izan beharko dituzte.

Bide publikoan lan egiteko erabiltzen diren ibilgailuak behar bezala seinaleztatuta egon beharko dira hobeto hauteman daitezen, eta oinezkoentzat eta ibilgailuen trafikorako arriskuak ekiditeko.

Ibilgailu guztiak Udalaren irizpidearen arabera pintatuko dira behin kontratua esleituta.

Gidariaz aparteko langileen (bi baino gehiago direnean) lekualdaketak eskatzen dituzten brigadetako ekipamenduak, lekualdaketa horietan langileen erosotasuna eta segurtasuna bermatzeko moduko kabinaz hornituta egongo dira.

81. artikulua.- Eskaintzen den material guztiak xehetasunez deskribatu beharko dute lizitatzaileek. Hala, planoak, krokisak, eskemak, argazkiak eta beharrezkoak diren datu guztiak aurkeztu beharko dituzte, materialak ahalik eta ondoen ezagutze aldera. Bereziki balioetsiko dira soinu eta gasaren emisioa eta kontsumoa murriztera bideratutako neurriak hartzea, ingurumenarekin lotutako beste zenbait alderdi kontuan izateaz gain. Erregai alternatiboak erabiltzea balioetsiko da.

82. artikulua.- Bilketa, gehienbat, gauez egingo denez, lizitatzaileak bereziki izan beharko du kontuan eskaintza egiteko garaian joan-etorrietan zein bilketa-zerbitzua egiten den bitartean, ibilgailuek emititutako soinuak ez dezala gainditu, une bakar batean ere, pertsonei enbarazu edo traba egitea eragiten duten soinu-mailarik.

83. artikulua.- Ibilgailu guztiek GPS lokalizazio-sistema finkoak izango dituzte, ibilgailuetan txertatuta.

84. artikulua.- Esleipendunak zerbitzu horietara bideratutako material guztiaren prebentziorako mantenu-

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

plan bat aurkeztu beharko du, koipeztatze zein berrikuspenari edota aldizkako eragiketei buruzko alderdiak adieraziz.

85. artikulua.- Administrazio Baldintza Partikularren Pleguetan aurreikusten den kontratuaren egikaritze-epea amaitzean, material guztia amortizatutzat joko da.

86. artikulua.- Kontratua amaitzean, material guztia udal jabetzakoa izatera pasako da.

87. artikulua.- Ibilgailu automobil guztiak aldizkako ikuskapenera eraman beharko dira, indarreko araudian ezartzen den moduan, eta betiere, aplikagarri bada. Aipatu Organismoak egiten dituen parteen kopia bat igorriko da Zerbitzuko Buruzagitzara, beranduenez, ikuskapena egin eta hilabeteko epean.

Kontratistak Udalari itzultzeko makineria kontserbatzeko betebeharrarekin betetzen duela bermatzeko, kontratuko azken sei hilabeteetan Ibilgailuen Ikuskapen Teknikora eramango dira ibilgailuak, eta Udalaren zerbitzu teknikoek ere ikuskatuko dituzte, eta esleipendunaren kontura izango dira ibilgailuak etorkizunean erreserbako ibilgailu modura geratzeko beharrezkoak diren konponketen kostua.

VII. KAPITULUA – KONTROL-SISTEMAK

88. artikulua.- Lizitatzaileak zerbitzua kontrolatzeko sistema bat aurkeztu beharko du, Udalak esleipendunari agindutako jarduera guztien etengabeko jarraipen bat egin ahal izan dezan, denbora errealean ere bai.

89. artikulua.- Sistema horrek euskarri informatikoan egon beharko du osorik eta aplikazio grafikoaz. Paperez soilik Udalak eskatuta (txosten edo planoetarako) aurkeztu ahal izango da. Udalari helarazterakoan kontuan izan beharko da Udal Zerbitzuaren ordenagailutik modu arin eta eraginkorrean sartu ahal izatea.

90. artikulua. - Sistema hori etengabe elikatu beharko du esleipendunak datu errealak eta uneoro eguneratuak erabiliz.

91. artikulua.- Sistema hori teknologikoki uneoro eguneratuz joan beharko da, kontratuan zehar haren prestazioak hobetuz.

92. artikulua.- Kontratuaren esleipendun den enpresak jarraian adierazten diren alderdiei buruzko informazioa argitaratu beharko du REST zerbitzuen bidez, VI. eranskinean zehazten den ereduari jarraiki:

planifikatutako bilketa-ibilbideak
edukiontziak: inbentarioa eta betetze-bolumena, denbora errealean
tamaina handiko hondakinen bilketarako erregistroak
ibilgailuak: posizioak, denbora errealean
lan-parteak
ibilgailuen eta langileen sartu-irtenak
hautemandako intzidentziak

REST zerbitzuek kontratua esleitu eta, beranduenez, 3 hilabeteko epean egon beharko dute abian eta datuak eskainiz.

Enpresa esleipendunak egindako lanei dagokion informazioa denbora errealean eguneratuta mantendu beharko du aurrez deskribatutako sisteman. Egindako lanen fakturazioa udal sisteman jasotako informazioaren arabera egingo da.

Udalak jasotako informazioa baliozkotzeko egokitzat jotzen dituen kalitatea kontrolatzeko prozesuak burutuko ditu.

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

93. artikulua.- Kontratatuko zerbitzuak udal administrazioaren ikuskapen eta zaintzapean egongo dira uneoro. Administrazioak, langileei eta materialari dagokienez, egokitzat jotzen dituen berrikuspenak egin ahalko ditu, edozein une eta lekutan. Administrazioak horretarako izendatutako ikuskaritzak zerbitzuko lokal eta bulegoetan sartu ahal izango du eta, antolaketari buruz, behar dituen datuak emango zaizkio.

Kontratistak betebehar hori betetzeko beharrezkoak diren dokumentuak erakutsi beharko ditu derrigorrez, bereziki, gizarte segurantzarekin, lan-istripuekin, aseguru-poliza eta instalazioekin eta materialarekin lotuta eta, oro har, udal honen edozein erantzukizun subsidiario ekiditeko esku-hartze guztiak baimendu beharko ditu.

94. artikulua.- Hilero laneko egoerari, istripuen ondoriozko bajei, gaixotasunei edota faltei buruzko laburpena aurkeztuko du.

Era berean, hilero, ziurtagiriekin batera, zerbitzuari berez dagozkion Langileen Zerrenda Nominalak igorriko ditu zerbitzu teknikoetara.

VIII. KAPITULUA - INSTALAZIO FINKOAK

95. artikulua.- Instalazio finkotzat hartuko dira materiala gorde eta mantentzeko zein langileak elkartu eta banatzeko balio duten garajeak, tailerrak, biltegiak, bulegoak, langileak elkartzeko zentroak, instalazio laguntzaileak barne (komunak, aldagelak, etab.), Laneko Segurtasun eta Osasun arloan indarrean den erregelamenduan xedatutakoaren arabera.

96. artikulua.- Esleipendunak Bulego Orokorrak, ibilgailuak gordetzeko nabe bat, tailerra eta biltegia izan beharko ditu erabilgarri, zerbitzu ezberdinetan erabiltzeko ibilgailuak konpondu, mantendu eta kontserbatzeko dagozkion zerbitzuekin, eta lan horiek esleitzen zaizkien langileentzako zerbitzuekin.

Instalazioek zerbitzuan erabilitako ibilgailuetarako karga elektrikoko puntuz hornituta egon beharko dute, bereziki kontratuan adierazten diren tonaje handiko bi kamioietarako, unitate bakoitzean 310 kWh-ko potentziarekin.

Hauek izango dira kargagailuen ezaugarri nagusiak:

- Kargagailuek barnetik operagarriak izan beharko dute, ISO 15118 [-1, -2, -3] eta IEC 61851 [-1, -23, -24] arauak betez.
- Energiaren bi norabideko fluxua ahalbidetzen duen IGTB tipologia.
- Tenperatura handiko diseinu espezifikoa, 50ºC arte, prestazioak galdu gabe.
- Isolamendu galbanikoa eta distortsio harmoniko minimoa, ≤ % 3
- Potentzia erreaktiboa kudeatzeko gaitasuna
- Komunikazio-moduluak, urruneko kontrolerako (Modbus TCP/IP) zein tokian bertan kontrolatzeko (pantaila ukigarria).
- Ekipamenduaren balio-bizitza 15 urtetik gorakoa
- Sare-analizatzaile txertatuak kontsumo zehatzen analisia egiteko.
- OCPP 1.6 bidezko monitorizazioa eta kargaren kudeaketa (karga-funtzio nagusia txertatua)
- Kargagailu bikoitza, gutxienez 2 x 75 KW potentziaduna

Lokal horien inguruko egoera-planoak aurkeztuko dira eskaintzetan.

97. artikulua.- Udalak ez du esleipendunak kontratuan zehar erabiltzen dituen lokalen gainean inolako konpromisorik izango, ezta kontratua eten edo iraungitzen bada ere.

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

98. artikulua.- Instalazio finkoak erabiltzearen ondorioz ur, argi, telefono edota gasarekin lotuta izaten diren gastuak enpresa esleipendunaren kontura izango dira, kamioiak kargatzearen ondoriozko kostuak barne.

IX. KAPITULUA - ZEHAPEN ARAUBIDEA

EZ-BETETZEAK ETA ZIGORRAK

EZ-BETETZEAK

Esleipendunak zerbitzu ezberdinak egikaritzean egindako ez-betetzeak oso larri, larri eta arin modura sailkatuko dira.

Oso larritzat joko dira hauek:

a) Zerbitzua ez Plegu honetan adierazitako epearen barnean hastea.

b) Zerbitzuaren kudeaketa etetea, oinarrizko prestazioak ez egitea edo horiek modu traketsean egitea ingurumena, osasuna eta higiene publikoa kaltetuz.

c) Kontratuan adierazitako edozein lan-programan aldaketa esanguratsuak egitea Udalaren baimenik gabe.

d) Zerbitzu bakoitzerako aurreikusitako langile edota ekipamenduak erabilgarri ez izatea.

e) Ordutegietan sistematikoki atzeratzea, ezarritako bitartekoak ez erabiltzea edo bitarteko mekanikoak egoera txarrean kontserbatzea.

f) Zerbitzura atxikitako bitartekoak hartatik aparteko lanetarako erabiltzea, aldez aurretik horretarako baimenik izan gabe

g) Udalak zerbitzuari buruz eskatutako informaziorik ez helaraztea.

h) Indarreko legerian segurtasunari eta higieneari buruz aurreikusitako neurriak ez betetzea.

i) Udalak zerbitzuen ordena, forma eta araubideari buruz emandako agindu formalei eta, oro har, zerbitzu horien prestazioa arautzeko araudiei muzin egitea.

j) Oporraldietan edo bajan dauden langileen ordezkoak ez hartzea.

k) Kontratua arautzen duten Baldintzen Pleguan ezarritako edozein baldintza eta epe ez betetzea, horretatik ondoren eratortzen diren ekintzen kalterik gabe.

l) Sei hilabete baino gutxiagoan bi akats larri edo gehiago errepikatzea.

Ez-betetze larritzat hartuko dira honako hauek:

a) Zerbitzuetan atzeratzea, baina ez modu sistematikoan.

b) Langileak lanposturako kualifikatuta ez dauden edo kontratuan ezarritakoa baino kualifikazio apalagoa duten langileekin ordezkatzea.

c) Enpresa esleipendunarekin lotutako langileek auzotarrekin gorabeherak izatea, hala tratu desegokiagatik nola zerbitzua modu eskasean emategatik.

d) Agintariak, karguan diren funtzionarioak edo autoritate-agenteak errespeturik gabe tratatzea.

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Lege Zuzendaritza - Dirección Jurídica
Tokiko Gobernu Batzarrak onartua.
Aprobado por la Junta de Gobierno Local - Secretaría

e) Eguneroko lan-parteak eta langileen sartu-irteneko parteak modu puntual eta sistematikoan ez aurkeztea, eta bertako egiazkotasunari buruz gabeziak egotea eta informazio nahikorik ez jasotzea.

l) Sei hilabete baino gutxiagoan bi akats arin edo gehiago errepikatzea.

Ez-betetze arintzat joko dira aurreko ataletan aurreikusten ez diren gainerako guztiak, eta nolabait, Baldintzen Pleguan ezarritako baldintzak kaltetzea suposatzen dutenak, zerbitzuetan larriak ez diren kalteak sorraraziz, edo langileekin edo erabilitako bitartekoekin lotutako alderdiak eskastea eragiten dutenak.

Aurreko ataletan sartzen den edozer alderdiren ez-betetze nolakoa den kalifikatzea Donostiako Udalari dagokio soilik eta esklusiboki.

ZIGORRAK

Hauek izango dira Donostiako Udalak enpresa esleipendunari ezarri ahal izango dizkion zigorrak:

a) Oso larritzat kalifikatutako ez-betetze batengatik, 3.000 eta 6.000 euro bitarteko isuna.

Hiru ez-betetze oso larri egiteak kontratua etetea ekarriko du.

b) Ez-betetze larri bat egiteagatik, 1.000 eta 3.000 euro bitarteko isuna.

c) Falta arinak 600 eta 1.000 € euro bitarteko isunekin zigortu ahal izango dira, bakoitza.

2022ko urriaren 20a

Hiri Zerbitzuetako teknikaria

Josu Sarobe

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Lege Zuzendaritza - Dirección Jurídica
Tokiko Gobernu Batzarrak onartua.
Aprobado por la Junta de Gobierno Local.
Batzordeko idazkaria,
El/La secretario/a de la Junta,